# ERTEak OSATZEKO AKORDIOA: Laguntzen gainetik itxurakeria asko

Ekainaren 18an Eusko Jaurlaritzak, CONFEBASK patronalak eta gutxiengo sindikalak, CCOO eta UGT sindikatuek, ERTEetan dauden langileentzat erabat partziala den laguntza onartu zuten. Jaurlaritzak sektarismo izugarriz uko egin dio gehiengo sindikala osatzen dugun ELA eta LABekin hitz egiteari ahalik akordio merkeena lortzeko, horrek langileen beharrei inolaz ere erantzuten ez dion arren.

Akordioak gabezi larriak dauzka ELAren ustez:

- **Laguntza ez da nahikoa!** Akordio honek hilean 1666 eurotik gorako kotizazio oinarria duten langileak laguntzetatik kanpo uzten ditu. Ondo da langile pobreenak bereziki laguntzea, baina akordioa urrun da ELAk egindako eskaeratik (1200 eurotik beherako soldatak %100ean osatzea eskatzen zuen, 1500etik beherakoak %90ean eta hortik gorakoei 400 euroko laguntza ematea, soldataren %80ko gehienezko laguntzarekin). ERTEan dauden langileen %70ek ez dute inongo laguntzarik jasoko.

- **Hiru hilabeterako soilik!** Soilik uztailaren 1etik irailaren 30era izango da aplikagarria. ELAk urte guztirako akordioa nahi zuen, ondoren luzatzeko aukerarekin.

- **Ez du enplegua bermatzen!** ELAk enpresen kotizazioak osatzea eskatzen zuen, horren truke enpresek enplegua mantentzeko obligazioa zutela. Akordio honek ez du lagunduko lanpostu bat ere mantentzen.

- **Ez dute enpresek finantzatuko!** ELAk enpresen irabazien gaineko zergaren bitartez finantzatzea exijitu du, akordio honek oso gastu txikia eragingo du (20 milioi euro ELAk eskatzen zituen 300 milioien aurrean), baina gehienbat langileok ordaintzen ditugun zergen kontura finantzatuko da, eta ez enpresen kontura.

Akordio honek helburu bakarra izan du, ahalik kostu txikienarekin hauteskundeen aurretik komunikabideetan akordio irudi bat lortzea. Jaurlaritzak horregatik erabaki du, modu erabat antidemokratikoan, ELAk behin eta berriz eskatu dion elkarrizketari ezezkoa ematea. Emaitza paradoxikoa izan da, Gobernuak ez zuen inongo laguntzarik onartu nahi, baina ELAren presio publikoari erantzuteko erabat eznahikoa den laguntza partzial hau martxan jarri dute. Hau da, Elkarrizketa Sozialean ez gaudelako ezarri dute laguntza hau eta honek gure egitekoa berresten du, lorpen txikiena izateko ere sindikatuon lana presioa eragitea dela, hain zuzen.



Junio de 2020

# ACUERDO COMPLEMENTO ERTES: Mucha foto pero sin ayudas reales

El 18 de junio el Gobierno Vasco, la patronal Confebask y la minoría sindical, CCOO y UGT, aprobaron una ayuda totalmente parcial para los trabajadores y las trabajadoras en ERTE. El Gobierno se ha negado con tremendo sectarismo a dialogar con ELA y LAB, que formamos la mayoría sindical, para alcanzar el acuerdo más barato posible, a pesar de que eso no responde en absoluto a las necesidades de las personas trabajadoras.
ELA considera que el acuerdo adolece de graves carencias:

- **¡La ayuda no es suficiente!** Este acuerdo excluye de las ayudas a quienes tienen bases de cotización superiores a 1666 euros mensuales. Es bueno que se apoye especialmente a las personas más pobres, pero el acuerdo se aleja de la petición de ELA de complementar los salarios inferiores a 1200 euros al 100%, los inferiores a 1500 al 90% y el resto con 400 euros con una ayuda máxima del 80% del salario. El 70% del personal en ERTE no recibirá ninguna ayuda.

- **¡Sólo por tres meses!** Sólo será aplicable del 1 de julio al 30 de septiembre. ELA quería un acuerdo para todo el año, con posibilidad de prorrogarlo después.

- **¡No garantiza el empleo!** ELA pedía complementar las cotizaciones empresariales, a cambio de que las empresas tuvieran la obligación de mantener el empleo. Este acuerdo no ayudará a mantener ningún puesto de trabajo.

- **¡No lo financiarán las empresas!** ELA exigía que se financira a través del impuesto sobre beneficios empresariales, este acuerdo supondrá un gasto muy bajo (20 millones de euros frente a los 300 que pedía ELA), pero se financiará mayoritariamente con cargo a los impuestos que pagamos los trabajadores y las trabajadoras, y no con cargo a las empresas.

Este acuerdo ha tenido un único objetivo, lograr una imagen de acuerdo en los medios de comunicación antes de las elecciones con el menor coste posible. Por eso el Gobierno ha decidido, de forma absolutamente antidemocrática, rechazar el diálogo que ELA le ha pedido reiteradamente. El resultado ha sido paradójico, el Gobierno no quería aprobar ninguna ayuda, pero han puesto en marcha esta ayuda, po insuficiente que sea, para responder a la presión pública de ELA. Es decir, han establecido esta ayuda porque no estamos en el Diálogo Social y esto reafirma nuestro papel, que para conseguir cualquier logro, el trabajo principal de los sindicatos es la presión.

